

Garun ihesa. Izena jarri behar izan zaio azken urteotan hain nabarmena izaten ari den fenomenoari. Goi mailako ikasketak eta prestakuntza jasotzen duten profesional eta zientzialari askok beren herria utzi eta atzerrira joan behar izan dute aukera bila, etxe bueltan panorama ez zelako ona.

Jon Mattin Matxainek badauki horren berri, urte asko eman baititu Euskal Herriko urrun bere formakuntza osatzeko. Bere ustez, arazoa ez da ikertzaileak kanpora joatea, hori normalean esperientzia oso aberasgarria izaten da, «eta beharrezkoa». Benetako arazoa ikertzaile horiek bueltatzeko modurik ez izatea da, Matxainen hitzetan, ikasi duten guztia bueltan bere jaioterriari emateko aukerarik ez izatea, alegia. Bueltarako bideak eraiki behar dira.

Zure hitzetan, ikerlari bat, kanpora joaten denean, dena irabaziak dira.

Nire ustez, bai. Egia da norbere bizitza pertsonalaren arabera desberdina dela egoera; bikoitekidea, lagunak, familia... horiek hemen utzi behar ditugu eta alde horretatik galdu egiten dugu, baina kanpora joaten garenean bide bat irekitzen dugu. Gure lana gustatzen bazaigu, pasioz bizi badugu, gero etorriko dira bueltatzeko aukerak, baina alderantziz agian ez. Pasioa bizi egin behar da eta bihotzari jarraitu. Ikertzaile batek maiz bihotzari jarraitu behar dio, ikertzeko aukerari, eta kanpora joan behar izaten du horretarako. Arazoa da gero bueltatzeko aukerarik ez badago. Orduan bai, galdu egiten dugu, eta ez ikertzaileok bakarrik, jendarte osoak baizik. Baina kanpora joatea formakuntza-ren parte iruditzen zait, beharrezkoa eta onuragarria.

Puntako zientzialari eta ikertzaile gehienek curriculumetan munduan barna eginda-

«Ikertzaileak etxera bueltatzeko aukerak landu behar dira. 2000. urtetik hona hobetzen joan da, baina panorama ez da ona; duela hamabi urte baino hobeto gaude, baina duela lau urte baino okerrago»

«Ikerketa proiektu batek finantzazio iraunkorra behar du, proiektua hasi eta bukatu egingo dela ziurtatzeko. Hobe da diru gutxiago, baina era iraunkorrean. Bestela, lan asko alferrikakoa gertatzen da»



ko ibilerak agertzen dira. Mundu ikuskera desberdinak garatzeko, mundua ertz desberdinetatik ikusi beharra dago, ezta?

Zalantzarik gabe. Azkenean, ez gara gehiago bizi, egunak 24 ordu dauzka han eta hemen. Baina bizipen desberdinak bizi ditugu hemendik kanpo eta horrek aberastu egiten gaitu, ikuspegi desberdinak ematen dizkigu. Gero, arazo baten aurrean gaudenean, ikuspegi desberdinak izatea lagungarria da oso. Ikerketan ari garenean, hori mesedegarria da. Ikertzaile batentzat kanpora joatea

prestakuntza integrala da; Euskal Herrian ikasitakoari kanpoan ikasitakoa gehitzea da.

Zein baldintzatan joaten dira euskal ikerlariak kanpora?

Denetarik dago. Joaten garen herrialdearen beka bat edo diru-laguntzaren bat baldin badugu eta herrialde hori ikerketan mailan puntakoa bada, baldintzak oso duinak izaten dira normalean; kontratu onak, soldata duinak, denbora aldetik bi urte... eta ez da arazorik izaten. Gerta daiteke, eta gertatzen da, gure gobernuak

ematea beka eta joaten garen herrialdean bizitza maila oso garestia izatea. Kasu horietan, arazoak sor daitezke. Esaterako, Suitzan baldin bagaude ikerlari eta hilean 1.500 euro baldin baditugu, ba kopuru duina izan daiteke hemen, baina Suitza oso garestia da. Eta horrelakoetan gerta daiteke gure lankideek Suitzako Gobernuaren beka bat izatea eta gu baino askoz diru gehiago kobratzea. Denetariko egoerak sortzen dira.

Kanpora joatea ezinbestekotzat jotzen duzu. Erakundeek



«Kanpora joaten diren ikertzaileak Euskal Herrira bueltatzeko bideak eraiki behar dira»

eta hezkuntza komunitatearen aldetik, ondo antolatuta al dago aukera hori?

Antolatuta badago, hor daude Erasmus programak, baina ez da nahikoa. Ez kantitate aldetik –gero eta beka gutxiago ematen dira–, ezta ematen den mezuari dagokionez, maiz ulertarazten baita ez dela beharrezkoa kanpora joatea. Mezu horiek bidaltzen dira iker-tzaile gutxiago joateko kanpora eta, ondorioz, diru gutxiago gastatzeko. Badaude bideak kanpora joateko, baina diru gehiago inbertitu behar da horretan; bai ikertzaileei

begira bai edozein profesio-nali begira, lan mundura sartze-ko baliabide gehiago izan di-tzan.

Murritzeta garaia. Aginta-riek guraizeak martxan jar-tzen dituztenean, ikerketari kalte handia egiten diote normalean. Ikuskera bitxia da, ikerketa luxu bat dela ulertzen baita, ‘erabat beha-rrezkoak’ diren gauzen ze-rrendatik kanpokoa.

Ikuspegi desberdinen ondo-ria da hori. Politikarien ikus-kerak hauteskunde batzuetatik hurrengoetara bitartean dago-ena da. Ikertzaileona, guztiz kontrakoa. Ikerketaren ikuspe-gitik, hiruzpalau urteko epea ez da ezer. Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte ikerke-taren aldeko apustuari eustea-ren aldeko jarrera izan da, bai-na ikusten dugu gauzak okertzen ari direla. Eta hori oso kaltegarria da guretzat eta jendarte osoarentzat.

Azken finean, jendarte batek zein oinarriren gainean erai-kia izan nahi duen erabaki behar du, ezta?

Europako iparraldera begira-tuz gero, inbidia sana senti-tzen dugu. Ez dute batere mur-ritzitu hezkuntzan, osasunean eta ikerketan, eta horrela doa-kie. Gurean, aldiz, badirudi kezka beste batzuk direla. Zientzialariok, ikertzaileok, irakasleok... lana egin beharko genuke politikariak konbentzi-tzeko, baina erabakiak hartzen dituztenak haiek dira eta, ta-malez, oso epe motzeko ikus-kerak daukate.

Gure beste arazo bat izaten da zehaztea zein den ikerketa garrantzitsua eta zein ez. Eta normalean galdera bat izaten da gakoak: ‘hori zertarako?’. As-kotan, ezin dugu galdera hori erantzun. Guk nagusiki ikaste-ko ikertzen dugu eta ikertzen dugun hori agian noizbait aplikatuko da edo agian ez, eta aplikatzekotan ere ez da jaki-ten zertan. Baina, hala ere, ikertu egin behar da. Eta zien-tzian badira hori frogatzeko mila adibide; askotan, nora iri-

tsiko garen garbi jakin gabe ikertzen da.

Aipatuko al zeniguke adibide horietakoren bat?

Esaterako, Erresonantzia Mag-netiko Nuklearra oso ezaguna da medikuntzan, eta asko era-biltzen da. Denok dakigu gutxi gorabehera zer den erresonan-tzia magnetiko bat. Ba horren oinarrian fenomeno kuantiko bat dago, nukleoaren espina, eta aspaldi deskubritu zen, 1930eko hamarkadan. Garai hartan, propietate hori desku-britu zuten, baina artean ez ze-kiten zertarako erabiliko zu-ten. 40-50 urte geroago ikusi zuten medikuntzan aplikatu zitekeela eta garatu egin zu-ten, gaur egungo erabilerara iritsi arte.

Ikerkuntzak erritmo propioa dauka.

Patxada behar da eta inber-tsioa, baina planifikatutako in-bertsioa. Ez da bat-batean diru asko inbertitu behar datozen urteetan zer egingo den jakin gabe. Hobe da pixkanaka joa-tea, baliabide txukunak jarri, inbertsioak egin eta urtez urte pixkanaka haziz joatea. Ez da komeni bat-batean haztea, az-karregi hazten dena normale-an erori egiten delako. Eta hori gertatu da Madrilen eta beste toki askotan. Dirua soberan ze-goenean diru mordoa inberti-tu zuten, politikariek argazkia atera zuten –normalean argaz-kirako oso ondo geratzen baita ikerkuntzan inbertitu dugula esatea–, baina murritzetak etorri zirenean hortik murriz-tu zuten lehenbizi. Eta eraiki-takoak ez du ezertarako balio urtez urte eusteko modua ez baldin badago.

Pentsatzekoa da ikerlari ba-tentzat oso frustragarria de-la proiektu batean buru-bela-rrari aritu eta beti inbertsio horren mende egotea.

Diru-laguntza murritzteak ikerketa talde batean taldea murritztu beharra esan nahi du eta, beraz, ikertzaile ba-tzuek kanpora joan beharra. Imajinatu hamar ikertzaileko talde batean bostek joan be-



Argazkiak: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

JON MATTIN
MATXAIN BERAZA
EHU-KO IKERTZAILEA ETA
IRAKASLEA

Kimika kuantikoa du pasio, eta bulkada horri segituz osatu du bere formakuntza Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Baina bueltatu da, eta bueltako bide hori aldarrikatzen du ikertzaile guztientzat

amagoia.mujika@gaur8.info



IBILBIDEA Jon Mattin Matxain Berazak (Iruñea, 1975) **EHU**ko Kimika Fakultatean abiatu zituen ikasketak. Erasmus programarekin eta kimika kuantikoak liluratuta, Herbehereetara joan zen, **Utrecht University**-ra. Gero, Cambridgeko unibertsitatean jarraitu zuen formakuntzarekin, **Cavendish Laboratory** sonatuan. Suediako **Örebro University**-n segitu zuen ikasten, harik eta 2009an Donostiara bueltatu zen arte. Egun, **EHU**ko irakasle eta ikerlaria da eta **Donostia International Physics Center**-eko kidea ere bada

harra dutela diru-laguntzak murriztu dituztelako. Pertsona kopuru erdiak ezin du lan berdina egin. Hartara, askotan ikerketa proiektuak bertan behera utzi behar izaten dira. Ahal denean, epeak luzatu daitezke, baina askotan proiektua bertan behera utzi eta dauden baliabideekin egingarria den beste zerbait abiatu behar da. Horregatik, ikerketa proiektu batek finantziazio iraunkorra behar du, proiektua hasi eta bukatu egingo dela ziurtatzeko. Hobe da diru gutxiago, baina era iraunkorrean. Bestela, lan asko alferrikakoa gertatzen da.

Interesgarria da proposatzen duzun bidaia: joan, mundua ikusi, mundua ikasi, jakintza horrekin etxera bueltatu eta ikasitakoa etxean inbertitzea.

Oso garrantzitsua iruditzen zait bueltatzearen ideia hori. Euskal Herrian ikasi dugunok bertako baliabideak izan ditugu eskura; bekak, zergetatik etorri diren diru-laguntzak, maiz atzerriko egonaldiak ere bertako gobernuek finantzatuak izaten dira... Pentsa zer nolako diru galera litzatekeen ikasitako guztia, bertako inbertsioekin jasotako formakuntza guztia, ezin bagenio euskal jendarteari bueltatu. Politikariek garbi izan beharko lukete ez dela nahikoa ikerkuntzarako bekak eta laguntzak ematea, ikertzaileak Euskal Herrira bueltatzeko bideak eraiki behar direla, beren ibilbide profesionala bertan segitu dezaten baliabideak eta tresnak jarri behar direla. Bestela, euskal jendartearen bultzadaz formatutako ikertzaileak beste herrialde batzuentzat

lanean aritzea dirua zakarretara botatzea da.

Eta nola dago kontua bueltatzeko?

Beharrezko galdera da. 2000. urtetik hona hobetzen joan da, baina panorama ez da ona; duela hamabi urte baino hobeto gaude, baina duela lau urte baino okerrago. EAEn badaude Ikerbasque programak, finantzazioa gero eta txikiagoa da... kezka pixka bat badaukagu panoramak okertze aldera egingo ote duen. Dena den, ez dugu ezkorrak izan behar, badaude bueltatzeko aukerak, baina ugariagoak izan beharko lukete. Duela hamabi urte baino hobeto gaude, programa gehiago daude martxan eta gehiago inbertitzen da ikerlariak Euskal Herrira buelta daitezen, baina oraindik bidea oso luzea da. Asko dago egiteko.

Zergatik Meyerhold?

Naiara Garzia

Datorren asteazkenean Meyerhold antzerki zuzendaria eta teorikoa jaio zela 141 urte beteko dira (1874. urteko urtarrilaren 28an jaio zen) eta mahai ondolan duela 10 urte baino gehiago irakurritako berari buruzko liburuak eta fotokopiatutako bere inguruko dokumentu batzuk dauzkat. 1971. urteko uztailean argitaratutako “Primer acto” aldizkariaren 148. zenbakia, adibidez, non «¿Por qué Meyerhold?» izeneko artikulubat azaltzen den, Meyerholden azkeneko argazkiarekin, bera erail baino lehen, eszena zuzendarien kongresu batean. Edo “Meyerhold, A Revolution In Theatre” liburua.

Antzerkia eta artea maite dituztenentzat Errusiako XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera ikaragarri interesgarriak dira, eta hori oso ongi islatzen du Marc Slonim-ek “El teatro ruso. Del imperio a los soviets” izeneko liburuan. Meyerhold bera ere garai horretako testigu izan zen, beste jende askoren ondoan.

Zaila da bere erailketarekin inpartziala izatea. Alde batetik pertsonak hunkitzen gaituelako: 66 urtetan hainbeste gauza egin eta sortu dituen gizabanako bat hiltzea beti da albiste txarra, hain bizitza oparoa izanda. Eta bestetik, ulergaitza delako sobiet estatuarekin hain harreman estua izan ondoren (teatro inperialak zuzendu zituen) honek bera erailtzea erabakitzea, 1930. urtetik aurrera harreman hori erabat aldatu zen arren. Vsévolod Emílievich Meyerhold 1940. urteko otsailaren 2an erail zuten, urtebete lehenago bere emaztea Zinaida Rajch bere etxean lepoa moztuta azaldu ondoren, 1939ko uztailaren 15ean. •